



Eugenio Artetxe Palomar
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Segurtasun Saila

Jaun hori,

Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Legearen bosgarren aldaketa eragingo duen Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan uztailaren 13an, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Legearen bosgarren aldaketa eragingo duen Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen du autonomia erkidegoak eskumena duela segurtasun publikoaren gainean (17. artikulua). Halaber, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du toki araubideari eta autonomia erkidegoko zein toki administrazioi funtzionarioen estatutuari dagokionez, Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan finkatutakoari kalterik egin gabe (10.4 artikulua).

Eskumen horien babesean onartu zen uztailaren 17ko 4/1992 Legea, Euskadiko Poliziari buruzkoa.

Lege horrek hainbat aldaketa jasan ditu, besteak beste Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak eragindakoak.

Orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Legearen bosgarren aldaketa eragingo da. Bertan badaude zenbait hizkuntza aipamen:

-Zioen azalpeneko laugarren paragrafoan adierazten denez, eraberritze honen bidez sendotu nahi da zerbitzu polizialen txertaketa gure gizarte elebidunean.

-Zioen azalpeneko seigarren paragrafoan adierazten denez, gurea bezalako gizarte elebidun batean, eredu poliziala bi hizkuntza ofizialetan ematera zuzendu behar da, ahalbidetuz euskara zerbitzu-hizkuntza zein lan-hizkuntza izatea, bai eta euskal polizia herritarrek aukeratutako hizkuntza ofiziala egiteko gauza izatea ere.

-Artikulu bakarreko zazpigarren atalak sortuko duen 30 bis artikulua 2. paragrafoak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoak beren baitan hartzen dituzten administrazioak ahaleginduko dira beren zerbitzura aritzen diren langileak behar bezala gaitzen gizarte elebidun batean zerbitzua emateko, eta, horretarako, behar diren neurriak hartuko dituzte eta kidego horietan euskara erabilia izan dadila sustatuko dute, baina nolana ere, herritarrak zein hizkuntza aukeratu, horrexetan artatuko dute.

Bestalde, aldatuko den Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean badaude hizkuntza aipu batzuk:

-39.1 artikulua xedatzen du euskal herri administrazioek euren mendeko polizia funtzionarioen hizkuntza prestakuntza sustatuko dutela.

-41.2.d) artikulua arabera, lanpostu zerrendan lanean aritzeko beharrezko baldintzak jasoko dira, tartean hizkuntza eskakizuna, eta derrigor tasun data dagokionean.

-45. artikulua jarraiki, polizia kidegoetan sartzeko deialdietan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. tituluaren xedatutakoa beteko da, nahitaezko euskara maila nahiz euskarari eman beharrezko balioari dagokionez. Halaber, hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probei eta euren edukiei dagokienez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak agindutakoa egingo da, eta proben epaimahaian beti egongo da erakunde horren ordezkari bat.

-47.3 artikulua aurreikusten da hautaketa prozesuetako deialdien oinarrietan eskaintako lanpostuak jasoko direla, derrigorrezko hizkuntza eskakizunak zehaztuta.

-Zazpigarren xedapen gehigarriak jasotzen duenez, Ertzaintzako lanpostuen hizkuntza eskakizunak Jaurkitza Kontseiluak onartuko ditu.

-Bosgarren xedapen iragankorrak aurreikusten zuen Ertzaintzako lanpostu zerrenda onartu bitartean euskararen ezagutza meritu moduan baloratuko zela, hautaketa prozesuetan eta lanpostuak hornitzeko prozesuetan. Bere balioa, prozesu osoaren gainerako probetan lor zitekeen puntuazioaren ehuneko bost eta hamar bitartean egongo zen.

-Azken xedapenetako lehenengoak aurreikusten du Ertzaintzako hizkuntza normalizazioa Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. tituluak arautuko duela. Halaber, Eusko Jaurlaritzari esleitu zitzaion Ertzaintzako hizkuntza normalizazio prozesua arautzeko ardura.

Egokiak dira hizkuntza aipamen horiek, eta bat datoz indarrean dagoen hizkuntza araudiarekin.

Edozelan ere, Lege Aurreproiektuak euskararen erabilera normalizazioari begira eragin hobea izan dezan, proposamen hauek egiten ditugu:

b.1- Lege Aurreproiektuaren artikuluko bakarreko zazpigarren atalak sortuko duen 30 bis artikuluko berriaren lehenengo paragrafoko c) idatz zatia osatzeko proposatzen dugu, hizkuntza aipatuz.

Izan ere, Autonomia Estatutuak argi dio ezin dela inor baztertu hizkuntza dela eta (6.3 artikulua), eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak dio botere publikoek neurriak hartuko dituztela Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela eta inor baztertua izan ez dadin (4. artikulua). Uste dugu egokia izango litzatekeela Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak ere beren beregi jasotzea ezin dela inor baztertu hizkuntza dela eta.

Beraz, aztergai dugun Lege Aurreproiektuaren artikuluko bakarreko zazpigarren atala moldatzeko proposatzen dugu, uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 30 bis.1.c) artikuluan hizkuntza ere aipatzeko.

b.2- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan adierazten du euskara hizkuntza ofiziala dela gaztelaniarekin batera, eta herritarrek bi hizkuntzak ezagutu eta erabiltzeko eskubidea dutela. Orobat, botere publikoei dagokie bi hizkuntzen erabilera bermatzea, eta hizkuntza oinarri duten bazterketa egoerak ekiditea.

Autonomia Estatutuarekin bat, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak dio herritarrek euskara eta gaztelania erabil dezaketela, ahoz nahiz idatziz, herri administrazioekiko harremanetan, arreta hizkuntza berean jasotzeko eskubidea barne (5.2.a eta 6.1 artikulua), botere publikoek bi hizkuntza ofizialak erabiliko dituztela xedatzeaz gain (8. artikulua).

Ondorioz, herri administrazioa diren aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziek bermatu behar dute haiekiko harremanetan herritarrek duten hizkuntza ofiziala hautatzeko eskubidea. Hala ere, uste dugu hizkuntza betekizun hau ez dagoela behar bezain argi islatuta moldatuko den uztailaren 17ko 4/1992 Legean, ez eta sortuko den 30 bis.2 artikuluko berriaren ere.

Beraz, Lege Aurreproiektuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean xedapen berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziek, haiekiko harremanetan herritarrek euskara eta gaztelania, ahoz zein idatziz, erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuko dute.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2015eko uztailaren 16an

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria